

Aitaren aita

Hiztegia

Erretore jaunak gomiatu zuen Pernando bazkaltzerat. Bainan semeak aitarekin joan nahi zuen. Ez zion bakerik ematen : eremateko eta eremateko. Pernandok nola egingen zuen?

Joan ziren biak apeztxerat eta aitak erran zion semeari:

“-Hi ate gibelean egon hadi nik deitu arte.”

Pernando sartu zen. Erretorea bazkaltzeko prest zen mahaina benedikatzan, bazkal aintzineko otoitza erranez :

“-Aitaren eta Izpiritu Sainduaren izenean, Amen.

-Pernando, gaizki ari zira. “Aitaren” egiten ahantzi duzu ? Ea, has zaite berriz. Pernandok bazakien zertan ari zen eta berriro lehen bezala egin zuen “Aitaren”.

“-Aitaren eta Izpiritu Sainduaren izenean, Amen.

-Eta Semea ?, galdetu zion apezak.

-A, bai ! Arrazoina duzu ! Hi, seme !, deitu zion. Hemen semea behar dute. Hator hunarat!”

Laster joan zen semea aitarenganat eta bere ondoan jarri.

Biek jaten duten lekuan hiruek ere jaten dute.

--	--

Ulermena :